

Martin Ugalde, bidean bakarrik utzi duten resistente bat literaturaren gordelekuan

Joxean Agirre

Egin, 1990-02-09: 48.

Adin traidorea da zahartzaroa. Argienak ere ernegatzen edo pelma jartzen hasten dira eta gutxi salbatzen dira laprast egitetik. Martin Ugaldek, ordea, hondatu gabe darama bere aura eta 69 urte bete hurrari dituenan, bi liburu berri kalera eta nobela sari bat eskuratu ditu, adoleszentiako ilusioen eta heldutasuneko desengainoen arteko puntu ekidistantea orain lortu bailuan. Energikoa baina sentibera, beroa baina neurtua, dotorea baina naturala, genioen diztira falta zaio beharbada, baina bertute guztiak ditu berekin. Etengabeko transfugo honek errebeldia mota neurtu bat kultibatu du eta horregatik beharbada "gazteen" eta "zaharren" arteko zubi bilakatu da hainbat eta hainbat liskarretan.

Goizeko 7,30etan jeikitzen da "*uda ala negu*" eta egunsenti bakoitzean arropa kolorez aldatzen den Kantauri itsasoari begira hasten da lanean Hondarribian duen etxean. Ritual sinple horren bidez aurkitzen du bezperan memoriaren anabasan korapilatu gabe utzitako ideien haria eta segitzen du irudimenaren madejarekin liburu berriren bat orrialdeak egiten. "*Sortzaile bezala eguerdiarteko langilea naiz eta arratsalde irakurri edo notak hartzera dedikatzen dut, nahiz eta sarri, trantzean nagoenean, haria galtzeko beldurrez, gau berandura arte idazten segitzen dudana. Egun horietan hamasei ordu lan eginda ere, apenas nekatzen naizen. Nere kezka bakarra errelatoak berak zabaltzen duen bideari segitzea izaten da eta maiz hari solteak uzten ditut bidean, biharamunean, kapitulu berri bati ekingo diodanean, nondik hasirik izateko*", esaten du Martin Ugaldek.

Lau izenburu berri

Eguerdiaarteko trantze luze horien fruitu berri bi dira Ugaldek kaleratu dituen liburuak eta oraintsu Euskadi Saria jaso duen nobela. Lehena, "*Lezo Urreiztieta*", gerra garaiko une klabe asko argitzen dituen jeltxore barojiano baten biografia da, adineko jendearen artean best-seller bezala salduko dena. Bigarrena, "*Batasun eta zatiketen artean*", Martinen obsesio nagusienetako izan den euskararen alorrari dagokio eta kazetari bezala "H"aren auzi ditxosezkoaren inguruan bi bandotako buruzagiei eginiko elkarrizketekin zabaltzen da, gizon honek konfliktuak razionalizatzeko duen grinaren lekuko. Eta hirugarrena, "*Itzuleraren historia*" izenburutzat daraman nobela saritu berria, esilatu baten itzulerako krisialdia da, nolabait Martinen beraren biografia trukatu, zeren eta norbaitek Hondarribiako itsasoari begira idazten duen idazle hori pertsona sedentariotzat hartzen badu, ez baitu inolaz ere aztertuko. Martin Ugalde, ezer izatekotan, pausalekurik gabeko esilatu izan da, etengabeko transfuga eta orain, burua ondo asentaturik duenean ere, ez

du babes bila inoren itzalera jo eta nahiago izan du gazte eta zaharren arteko zubitzako deseroso horretan bere burua mantendu.

Resistentearen irudi

Martin Ugalde gauza asko da eta nekez sar daiteke kasila errazetan. Sona haundiko idazle, Venezuelako astekari nagusienaren zuzendari, euskal kazetarien aitabitxi eta euskal historiaren laburtzaile ofizial, zerrenda luzea behar da gizon honen irudi profesionala zirriborrazteko. Bere funtsezko izakerak, ordea, hitz bat nahikoa du espresatzeko. Martin Ugalde resistente bat izan da urteetan eta sari gisa kargu publikoak jasotzeko sasoia etorri zitzaionean, ez zuen bere burua siloi haundietan ikusten eta itzalean geratzea erabaki zuen, horretan garai bateko intelektualen jarrera kritiko eta automarjinatzailea erakutsiz. Geroztik ere erresistentzian segitu du baina zeharkako moldeak erabiliz. *"Izan ditut, bai, karguak okupatzeko abaguneak baina oso deseroso sentitu naiz aulki ofizialetan eta eksaintza gehienei muzin egin diet. Egia da denboraldi batez Gasteizen izan nintzela, baina euskararen alde lan egiteagatik joan nintzen eta ezer gutxi egin zitekeela ikustean, alde egin nuen"*, erantzuten du. Martin Ugaldereen nortasun perfilean ameslari bat atzeman daiteke eta zaharrak gazteago egiten dituen errebeldia puntu hori nabari zaio hitzegiteko eran, baina zaharrak hain erridikulo egiten dituen nabarmenkeriarik gabe. *"Aitarengandik datorkit beharbada puntu hori. Garai haietan, ni haurra nintzenean, Andoaingo kaleetatik zehar joaten zer galtza motzetan korrika entrenatzera. Donostiako Fortuna taldekoa zen eta Mugerzarekin korritzen zuen hura bezain ona ez bazen ere"* esplikatzen du.

"Lezo"ren omenez

Martin Ugaldere betidanik egin zaizkio kutunago perfil haundiko nortasunak eta jelkideen artean gehien miretsi duen pertsonaietako bat izan da Lezo Urreiztieta. Pertsonaia barojano horri liburu bat eskaini dio orain. *"Nere emaztaren osaba zen eta tratu haundia izan dut nik Lezorekin eta bere biografiak liburu bat merezi zuela pentsatu izan dut beti. Yagi-yagikoa izan zen gaztetan eta aitaren negozioan sartu bezain laster hasi zen dirua egiten kontrabandoarekin. Zakur txiki batetan afeitazeko hojak erosten zituzten Britainia Haundian eta hemen 25 zakur txikitan salduz, milionario egin zen. Ekintzaile tipikoa, lehen egin eta gero esan egiten duten horietakoa, Luis Aranaren proiektuak praktikara eramaten zituen gizona izan zen eta gerra garaiko panoraman pieza klabea, bera izan baitzen Agirreren aginduetara armak erosteko operazio nagusienak burutu zituena, blokeoa ere apurtuz.*

Gizon honen bizitzak liburu hau eta gehiago idazteko gaia ematen zuen eta hil aurretik bere bizitzako gorabeherak grabatzeko komentzitu nuen. Liburu honen mamia, ondorioz, grabatu nituen 36 ordu horiek dira. Memoria ikusgarria zuen eta bizitza horretako pasarte batzuk bakarrik jaso ditut. Berak euskaraz ez zekienez, lehen bertsioa behintzat euskaraz egiteko agindua eman zidan eta horrelaxe egin dut, nahiz eta geroago 'Memorias de Lezo' izenburuarekin erdarazko bertsio luzeago bat emango dudan".

Best-seller bat bezala salduko den liburu honekin batean Euskal Herrira itzuliz gero, euskal astekarietan argitara eman dituen artikuluekin osaturiko bigarren liburu bat eman du argitara, Ugaldek euskaren alde egin duen burrukaren lekuko. *"Nik Chicagoko unibertsitatean uste dut ikasi nuela giza konfliktoak razionalizatzen. Geroztik beti erakutsi dut jarrera hori eta nere herrira itzuli eta euskararen munduan murgildu orduko sentitu nuen 'H'aren auzian zeuden ikusiezinak argitzeko premia. Horregatik mahai baten inguruan bezala kazetari baten aurrean bi bandoetako ordezkariak eseri eta argi piska bat egin nezakeela pentsatu nuen eta elkarrizketa horien ondorio da liburua neurri haundi batetan, nahiz eta garai horretan argitara eman nituen beste hainbat artikulua sartu baditu ere"*, esan zuen.

Euskal egunkaria

"Batasun eta zatiketen artean" Martinek debatean eta elkarrizketan duen sinesmen horren lekuko da eta jarrera hori beste hainbat alorretan erakutsi nahi du gizon honek. *"Ni konturatzen naiz euskal egunkaria kudeatzen ari garen taldean ez gaudela guztiok, baina ez dut galdu oraindik denok euskal egunkari bat ateratzeko bilduko garen esperantzarik. Buruan baditut PNVko adiskideen izen batzuk eta saiatuko naiz indar guztiak proiektu bakar batetara biltzen. Uste dut, neri zubitzakoa egitea tokatzen zaidala eta alde aurretik ahelegin horren porrota ikusirik ere, segitu egin behar dudala pentsatzen dut. Euskal egunkari publiko baten arriskua oso garbi ikusten dut, irakurle goaren zati haundi bat kontra baitago eta bide berriak aurkitu behar ditugu. Ondo ikusiko nuke indar guztiak batzen gaituen erakunderen batek egunkari hori bere esku hartuko balu, baina bi proiektu martxan jartzea burugabekeria iruditzen zait eta, bestalde, egunkari hori ezinbestekoa dugu, zeren eta milaka euskaldunek goizero erdara ikasteko ariketa bat egiten baitute eguneko berriak erdaraz irakurtzean. Pentsa zer izango litzatekeen ariketa hori bera euskaraz egingo balute!"*, esan zuen Martin Ugaldek.

Hirurogeita bederatzi urte gainean eta sasoiko sentitzen den gizon honen desengaino haundiak eraman ditu politikarekin eta batzutan adiskideek bakarrik utzi duten sentsazioa du, nahiz eta trago mingots horiek gorabehera lanerako grinarik ez duen galdu. Ugaldek hitzetik hortzera aipatzen ditu proiektu berriak eta aurki Erein etxeak argitara emango dion ipuin bilduma aipatzen du pasada, "Untxiak hiltzea ez da bekatu, debekaldian ez bada". Gisako izenburu luze eta poetikoek dituzten liburuen zerrenda dezentea du jadanik erdaraz nahiz euskaraz literaturaren alorrean. Ordea, baiditu izenburu zehatzagoak dituzten liburuak ere. Horiek euskal historiari dagozkie eta batzuk ehun milako tiradak izateraino iritsi dira dagoeneko, gizon honek gure historiaren dibulgazioan egin duen lanaren seinale.

Hori guztia gutxi bailitzan duela hilabete gutxi Jaurlearitzaren Euskadi saria eraman zuen "Itzulera baten historia"rekin, hain ondo ezagutzen duen esilioaren mundua kontatuz.